

630. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

**BERMEOKO UDALEKO ASISTENTZIA INFORMATIKOA ESKAINTZEKO
ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Xedea

Udalan baliabide informatikoen erabilera bermatzeko, egon daitekezan arazoei urtenbidea emateko, software eta hardware konponketa lanak egiteko zein udal kudeaketa eraginkorra bermatzeko asistentzia kontratua, BERMEO INFORMATIKA, S.L. enpreseari esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udalak 2011ko abuztuaren 12an, 838. Alkatetza Dekretu bidez azken informatika asistentzia zerbitzua esleitu eban.

Bigarrena: 2013ko otsailaren 4ko Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzita, urte ta erdirako kontratua beste urte ta erdi luzatzea erabagi eban, hau da 2013ko otsailaren 18tik 2014ko abuztuaren 18ra.

Hirugarrena: 2014ko abuztuaren 18tik aurrera udalak jasotzen dauan informatikako asistentzia kontratua amaitzen da.

Laugarrena: Zerbitzuagaz jarraitzeko eta informatikako asistentzia zerbitzua Udalan bermatzeko, 2014ko uztailak 17ko ATB batzordeak pleru tekniko eta administratiboak diktaminatu ebazan, esleipen jardunbideari hasikerea emoteko.

Bosgarrena: 2014ko uztailak 18an, bost enpresari gonbiteak bialdu jakezan, prozedura negoziatua publizidade barik burututa. Enpresa gonbidatuak, urteetan zehar hornitzaile izandako hiruretatik at, herriko beste bi enpresa ere izatea onetsi zan uztailak 17ko ATB Batzordean, eta horrela gonbitea jaso dabe honako enpresek:

- 1.- *Sarein Sistemas*
- 2.- *Bermeo Informatika S.L*
- 3.- *Konpon PC*
- 4.- *Consultec*
- 5.- *BITU*

Seigarrena: Bialdutako bost gonbiteetatik, lau enpresen erantzuna jaso da:

- 1.- *Sarein Sistemas*
- 2.- *Bermeo Informatika S.L*
- 3.- *Konpon PC*

4.- Consultec

Guztiak beharrezko betekizunak, erizpideak eta aurkezpen data bete dabez.

Zazpigarrena: 2014ko abuztuak 7ko ATB Batzordeak esleipen erizpideak aztertu eta aurkeztutako proposamenen balioztapena aztertu dabe aurkeztutako enpresak:

Argudioak

Lehenengoa: Aurkeztutako proposamenetan adierazitako prezio eta lan dinamika aztertu ostean honako puntuazioa jaso dabe:

Enpresea	Prezioa: 60 P	Lan Metodologia*: 40 P	Guztira
<i>Sarein Sistemas</i>	49,10	5	54,10
<i>Bermeo Informatika S.L</i>	51,76	30	81,76
<i>Konpon PC</i>	52,80		52,80
Consultec	60	15	75,00

**Eskaintza guztiak baldintzetan adierazitako lan metodologiaren gitxiengo betekizun eta erizpide guztiak jaso dituzte. Zenbaketan lan metodologian, horietatik at enpresek aurkeztutako beste eragin nabarmena eduki daikien eremuak, edo zerbitzu hobe bat eskaintzeko lagungarriak diranak balioztatu dira: formazio planak, ordu gehiago lan egitea prezio berean...*

Bigarrena: Bermeo Informatika, S.L. enpreseari, 2894 urteera erregistroagaz, esleipendun proposatutako enpresa gisa, behin betiko bermea jarri daian zein lan arriskuen inguruko enpresa jardueren koordinaziorako dokumentazioa aurkeztu daian jagokon errekerimendua egin jako, eta agiri guztiak aurkeztu dauz.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau proposatzen dot:

LEHENENGOA: Udaleko Asistentzi Informatikoa eskaintzeko Zerbitzu Kontratua **BERMEO INFORMATIKA, SL.** enpreseari esleitzea.

BIGARRENA: Urte beteko kontratua 30.855,00 € tan esleitzea. Prezioa, 25.500 €- eta BEZa 5.355 €.

HIRUGARRENA: Aurkeztu dauan dokumentazioari jagokonez, hurrengo hileetan egon daitekezan eguneraketa guztien barri emotea Udalari, beharrezko agiriak aurkeztuta, une oro espedienteko dokumentazioa eguneraturik egon daiten.

LAUGARRENA: Bermeo Informatika, S.L. enpreseari, esleipen horren indarrez, segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:

- 10 egun balioduneko epean, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Epea, esleipena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasiko dala kontuan eukita.

BOSGARRENA: Bermeo Informatika, S.L enpreseari erabagia jakinaraztea.

Bermeon, 2014ko abuztuaren 18an
JARDUNEKO ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA